

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Azpeitia

**Let's Clean Up
Euskadi!**

Ziklo guztiak

ARLO/IKASGAIA: Hondakinak

Hondakin bilketa bat antolatu nahi duzu zure ikasleekin?

Ekoetxea saretik ekimen hau antolatzen lagundu zaitzakegu, eta horrela heziketa potentzial handiena aprobetxatu. Hondakinak batzeko beharrezko eskularru eta poltsak emango dizkizuegu, garbiketa antolatzeko gida bat, eta eremu apropos bat aukeratzen, ekimena antolatzen, bilketa egiten eta ondorengo sailkapena egiten lagunduko zaituztegu.

Zure ikasleekin jasangarritasun baloreetan sakontzeko aukera ezin hobe, eta non hobe inguru naturalean baino?